

hondo-hondotik

Pernando Barrena

(Nafarroako Batasuneko eleduna)

Eskubide guztiak, euskaldun guztiontzat, Euskal Herri osoan

Munduko bazter guztietan, ondorio lazgarri eta samingarriak izan ohi dituzten gatazka politiko horiek, urteetan gure gosari informatiboa osatu izan ohi duten horiek irtenbide politikoak aurkitzen ari dira, herriek beren kabuz inongo mugarik gabe erabakitzeko duten eskubidean oinarrituta.

Horrela jasotzen dute nazioarteko oinarritzko itun eta konbenioek; giza-eskubideen eta herrien eskubideen inguruko itunak, elkar ulertzea eta elkarren errespetuaren oinarri direnak, nahiz eta Estatu moderno askok ez dituzten berretsi. Ez da Estatu espainiar zein frantsesaren kasua; bata zein besteak sinatu eta berretsi dituzte, gizabanakoen eskubideak zein eskubide kolektiboekiko errespetua oinarritzko eskaera baitira nazioarteko komunitatearen aurrean homologazio demokratikoa lortu ahal izateko. Gizabanakoenak zein kolektiboak diren eskubide demokratikoak eskubideak dira *per se*, ez dira bozketan irabazten edo galtzen, ez dira gehiengo zein gutxiengoaren arabera bermatzen edo baztertzen. Erljio baten kide edo sinesmen baten aldekoa izateko eskubidea ez da bozkatzen; modu berean, herri bati dagokion autodeterminazio eskubidea ez da bozkatzen; berez dago, eta kito.

Munduko herriak dira eskubide horien subjektua, eta horrelaxe jasotzen du Nazio Batuen Batzar Orokorraren 1514 ebazpenak «...Herriak, kanpo zapalketa eta menperaketa egoeran edukitzeak oinarritzko giza-eskubideen ukazioa dakar, Nazio Batuen kartaren kontrakoa da eta mundu mailako lankidetzat eta bakearen

helburuak auzitan jartzen ditu» dioenean.

Euskal Herriaren kasuan, euskalduntzat hartu behar dugu bertan jaioa dena zein bere burua euskal herritartzat duen oro. Modu berean, euskal herritartat hartuko genuke bere existentziaren jabe den euskal komunitatea, berezkoak dituen eskubideak eraginkortasun betean jartzeko prest dagoena —autodeterminazioa—. Komunitate horrek Euskal Herriko sei (edo zazpi) lurraldeetan du kokaleku, eta erabakitzeko eskubidea du gutxiengo-gehiengo joko guztien gainetik. Gauza bat baita euskal herri edo komunitate horri dagozkion berezko eskubideak, eta beste bat zein elkarbizitza eredu emanen lioketen Euskal Herriko biztanleek euren buruari eskubide guztiak bermatuta egon daitezen. Logikoki, behar-beharrezkoa da prozesu horretan kanpo-injerentziek ez baldintzatzea euskal herritarren erabakiak, horrela eskubide guztiak eraginkorrak eta gauzagarriak izan daitezken.

Inposaketa Estatu espainiar eta frantsesaren aldetik jaiotzen da, beraiek sinatutako nazioarteko itunen betetzeari uko egiten diotenean (ikus Helsinkiko Ituna, 1975; VIII. titulua). Konstituzio espainiarrak berak armadari ematen dio enkaragua bere 8. artikuluan («...batasuna segurtatzeko...»). Horrek, herrien eskubideen kontrako eraso zuzena izateaz gain, gizabanakoen eskubideen kontrako eraso garbia dakar, hain zuzen, Euskal Herriak libre izateko duen eskubideen aldekoak fisikoki mehatxatzen dituelako inongo lotsarik gabe. Egungo marko juridiko-politikoak gureak ez diren hizkuntzak, kul-

turak, kirol-selektzioak, justizia administrazioak, nortasun agiriak, zerga ordainketa eta hemengoak ez diren administrazio eta polizien inposaketa bermatzen du. Aukeratu ez ditugun eredu frantses zentralista edo erregimen espainiar monarkikoaren menpeko eta morroi izatera behartu nahi gaituzte.

Estatu horiek zein beren alderdi nagusiek dagoeneko esan dute ez dutela aitoruko gatazka politiko dagoela, ez autodeterminazio eskubidea, ez eskubide linguistikoak ezta «ofiziala» eta «espainola» ez den historiaren irakurketarik ere, ezta... Euskal kultura eta herriaren gutxiagotzea mugimendu espantsionista eta kolonizatzaile espainiar eta frantsesaren ondorioz gertatu da; hori da inposaketaren jatorria.

Autodeterminazio eskubidearen aitor-tzak ez du esan nahi eskubide hori automatikoki gauzatuko denik. Areago, eskubidearen aitor-tza izan daiteke hainbat abertzale epelek behar duten aitzakia erraza eraikuntza nazionalako dinamikei muzin egiteko. Ildo horretan, Estatu espainiarrak eta frantsesak autodeterminazio eskubidea ukatzen jarraitu izanak ez du zertan mugatu ezker abertzalearen ekimen politikoa eskubide horren aldarrikapenari dagokionez. Aitzitik, lehentasuneko da subjektu, foro eta instituzio nazionalen eraikuntza (administrazioak, selektzioak, nortasun agiriak) euskal herria den eskubide-subjektu komunitatea-

ren eskabideei egoki erantzun ahal izateko.

Autodeterminazio eskubidearen eten-gabeko aldarrikapenak ezin gaitu gure lan nagusi eta lehentasunetarik alden-du: harreman, instituzio, foro eta subjektu nazionalen eraikitzea Euskal Herriari berezko neurri kolektiboa eta lurralde aldetikoa eman ahal izateko. Lan hori behar-beharrezkoa da Euskal Herriari zor zaion burujabetza eszenatokira eramateko eta mundu globalizatu batean bizirik irauteko. Beraz, etorkizun hurbilari begira hortxe daude gako politiko nagusiak. Nekez espero dezakegu aurrerapausorik Gobernu espainiarraren eta frantsesaren aldetik Euskal Herriaren autodeterminazio eskubidearen aitortzaren bidetik, eta horrela baieztatu ahal izan dugu aste hasieran Madrilgo Kongresuan Aznarrek

INPOSAKETAREN JATORRIA

Euskal kultura eta herriaren gutxiagotzea espantsionismo espainiar eta frantsesaren ondorioz gertatu da

botatako hitzetan: «Ez dago gatazka politikorik, arazo bakarra ETA da»; beraz, berdin-berdina pentsa dezakegu gatazkaren balizko irtenbide demokratikoaren inguruan PPk eta Madrilgo Gobernuak bakerantz urratsak egiteko duten borondate ezaz.

Egoera horrelakoa izanik, ardura berezia izaten jarraitzen dugu konponbide demokratikoan sines-tzen eta eskubide guztien aldarrikapenean eta beren aitortzaren erdiestean gure lana ikusten dugunok. Aukera daukagu denbora laburrean eskubide guztien gainean eta beren errespetuan eraikitako proposamen bat plazara atera eta inflexio-puntu berri bat jartzeko irtenbide demokratikoaren bidean. Eskubideen aitor-tza eta errespetuak ezinbestekoa jarraitzen du izaten gatazkaren irtenbide demokratiko horri begira, eta, beraz, hortxe dugu erronka euskal demokratok: eskubide guztiak, euskaldun guztiontzat, Euskal Herri osoan. Batasunak, behintzat, horretan ikusten du bere burua.

gogoratu

Joxan Elozegi

DUELA 120 URTE

1881eko ekainaren 30ean sortu zen Irungo Samartzialako alarde berria, egun ezagutzen dugunaren aitzindaria. XIX. mendean zehar gorabehera handiak izan zituen San Martzial eguneko ospakizunak, gerren eta al-daketa politikoen kariaz, eta urte askoan gelditu ziren irundarrak alardetik gabe. 1880ko maiatzean «San Martzial gainean 1522ko ekainaren 30ean, frantsesen eta alemaniarren aurka, eta 1813an, frantsesen aurka, irabazitako guduak oroitzuz egiten den jaia» ospatzeko baimena eskatu zuen Irungo Udalak, «egun, herria normaltasunean bizi denez, berriro ere egin beharko bailitzateke festa hori». Ondoko urtean eman zuen baimena Gipuzkoako gobernadore zibilak.

Alarde berriak ez zuen aurrekoaren

antzez handiegirik. Lehen konpainia bakarra, eta oinez, osatzen zuten hemezortzi eta hirurogei urte bitarteko gizonezko guztiek; 1881eko hartan, ordea, oinezkoen konpainia bana eratu zen herrian eta zazpi auzoetan, artilleria eta zalditeria erantsi zitzaizkien haiei, eta artxeroen taldea ere sortu zuten, bidea ireki zezan. Musika bandak osatzen zuen multzoa. Kintak tiratzen hasi zirenetik bost urte es-

kas paseak ziren hartan, armadaren irudiko antolatutako agintari liberekin San Martzial eguneko ospakizuna, herria egoera berriaz ongi jabe zedin. Horregatik zabaldu zituzten konpainiak herri guztira, horregatik berregokitu zuten hierarkia, jenerala, komandantea, kapitainak, sarjentuak, kaboak... Eta kantinerak sortu zituzten, konpainia guztietan bana. Jantziak ere uniformatu zituzten, liberalen

Tradizioaren bandera

kapelu gorria buru guztietan egokitu zen eta, modernotasunak agintzen, ttattar gorriak dotoretu zuen soldadu berrien papoa.

1881eko ekainaren 30ean sortu zen mundua mundu deino Irungo jaiak horrelakoak izan zirela eta izango direla diotenen tradizioa, beren armada unibertsalean emakumeak kantinera baino onartzen ez dutenen tradizioa. Tradizio bitxia, garai joanetako gau ilunean ezkutatzeko dena. Egund, 2001eko ekainaren 30ean, bozkarioz joko dute danbor batzuek, beste urte batean bederen eutsi diotelako: «*Si supieran los franceses la fuerza que tiene España, a traición nos ganarían, pero cara a cara no. A traición, a traición, pero cara a cara no*». Bakarra baita tradizioaren bandera.